

## FAUNA PUBLIKOA

**“Delitu larriak egin izana leporatu dioten pertsona batek ezin du espero seguru eta zigorgabe geratzea hauteskunde prozesu batetik pasa ostean”**

**Felipe González, Espainiako presidente ohia, Carles Puigdemonti buruz (El Mundo)**

## Ongiaz eta gaizkiaz haraindi



Gorka Bereziartua Mitxelena  
@boligorria

Zinismo hitzaren definizioaren ondoan Felipe González-en esaldi hau agertuko da, noizbait, hiztegiaren batean. Denbora kontua da. Edo agian ez. Agian denborak garbitu egingo ditu Espainiako presidente izan zen garaiko estatu-krimenak. Lixibak eta zenbait hedabideek mirariak egiten dituzte horrelako delituekin: jada ez da geratzen 1985eko odol-arrastorik Baionako Monbar hotelaren aurreko espaloian; Hendaian, Peru eta Steinen autoa aparkatuta zegoen lekuan ez duzu bala-zorrorik aurkituko; Juan Carlos Garcia Goenaren autoaren burdin lehertuak ere ez. Desagertu dira: hildakoak, krimenen arrastoak. Errudunak zigortzeko aukerak ere bai, segur aski.

Ia atzo goizean diru publikoz atentatu bat ez baimendu izanagatik damututa agertu zen presidente ohia: “Denak saltarazi eta burua mozteko aukera dago. Erabakia bai ala ez da. Sinplifikatuko dut, esan nuen: ez. Oraindik ez dakit zuzen jokatu nuen”. Leporatu zioten zerbait hori esan zue-nean? Zabaldu zen artxibatuta zegoen kasuren bat? Hori publikoki adieraztea ez da delitu-zantzia?

Nire buruari galdetzen diot zer pentsatzen ote duten GALEk hildako pertsona bakoitzaren senideek González besteen ustezko kulpei buruz hizketan entzuten dutenean, ongiaren eta gaizkiaren gainerik balego bezala, zigorgabetasuna bezalako terminoak arintasun jasanezin honekin erabiliz. Erreferendum bat deitu zuen presidentea justiziarren aurrera eramateaz ari da, estatua “estoldetan ere” defendatu zuen presidentea. Eta González bezalako figuretan laburbiltzen da Kataluniako independentismoaren aurka indarberritu den Espainiako estatu-proiektua. Ezagutzen genuen, baina inoiz ez dago soberan gogora ekartzea zein iraingarria izan daitekeen. ■

**EZ HANKA EZ BURU!**



PILULA GORRIA HARTZEN BADUZU, KITTO. IRATZARTZEAN, SINETSI NAHI DUZUNA SINETSIKO DUZU...

...URDINAZ, MARABILLIN MUNDUN GEATUKO ZA, TA NEUK ESANGOTSUT KONEJUN ZULU NOARTE AILATEN DAN...!



ADUR